

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Atal honetan taldekide bakoitzak gure proiektuari zer aportatuko dion azalduko dugu. Eta bakoitzak zer lan egingo duen jakiteko bakoitzak dituen abileziak kontuan hartuko ditugu.

Hasiera batean, proiektua aurrera erama ahal izateko, taldeko bakoitzak diru kantitate bat jarri beharko du. Honekin, beharko ditugun hainbat baliabide lortuko ditugu, adibidez, proiektua garatzeko lokal bat beharko dugu, honek, argia, ura, gasa eta horrelakoak edukitzea beharrezkoa izango da, han lan egiteko posibilitatea eduki ahal izateko.

Gainera, gure produktuak berogailuen bidez funtzionatzen duenez, termodinamikan ezagutza eduki behar dugu. Horregatik, gai horri buruz ikasi beharko dugu, gure aparatoa sortu ahal izateko, eta bezeroren batek arazoren bat edukiko balu, guk lagunduko genioke eta. Montatzerako orduan, ondo jakin behar dugu non egon behar diren kokatuta berogailuak tenperatura egokia emateko aterkiari. Beraz, denok ezagutza edukiko dugu termodinamikan. Horretaz arduratuko dena, batez ere, lñigo izango da, baina lñigok egunen batean ezingo balu edozer gauzagarik lana egin, denok minimo bat jakin beharko genuke bere lan hori egin ahal izateko arazoren bat egongo balitz.

Horretaz gain, webgune bat nola sortu ikasiko du, ondoren, informatikako klase batzuk jasoko ditu Julenek webguneen ezagutza ikasteko. Hau beharrezkoa da, izan ere, web gune bat nola sortu eta ondo sortzeko informatu egin behar da lehendabizi, eta ondoren web gunearen erabilera egokia egin ahal izateko beste klase batzuk edukiko ditu. Gainera, berak jada badu ordenagailu bat, beraz, lana egiteko prest dago. Horregatik, Julenek webguneei buruzko ezagutza aportatuko dio.

Azkenik, gure taldeko kide batek diru kontuak eramango ditu, beraz, horretarako kontuak egiten jakin behar du. Unai matematiketan ona da eta kontuak nola egin ikasi beharko du. Matematiketan ona denez, uste dugu errez ikasiko duela kontuak egiten eta etorkizunean oso erabilgarria izango da gure ekonomia kontrolatzeko.